

Gobernu Batzarraren Akta

2025eko maiatzak 19an

Bildutakoak:

		Akta Zenbakia 00000006
Patxi Ibarguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik	Eguna 2025/05/19
Pepe Iparraguirre Balda	Andoaingo Udaletik	Iraupena 1:30 h
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik	
Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik	
Nuria Fernández Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik	
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik	

Asistentzia teknikoa:

Julen Mungia Gorrotxategi	Idazkari-Kontuhartzailea
Helene del Río Laboa	Zuzendaria

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Parte hartzen du ere

Gai Zerrenda

- | | |
|---|--|
| <p>1.- 2025/04/07 eta 2025/05/05(e)an egindako bileren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.</p> <p>2.- Mankomunitateko bulegoak handitzeko erosketari buruzko espediente, gastua eta adjudikazioa onartzeko erabakia hartzea, horretarako beharrezkoa den kreditu aldaketarekin batera.</p> <p>3.- Beterri-Buruntza marka turistikoaren onartzea.</p> <p>4.- Enplegu legeari jarraikiz egin beharreko enplegu planen inguruko aipamena.</p> <p>5.- 2025eko TEEn proposamenaren aurkezpena egitea.</p> <p>6.- Aurkeztutako 2024ko Kontu Orokorrak</p> | <p>1.- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las acta de las sesiones celebradas el 07/04/2025 y el 05/05/2025.</p> <p>2.- Acordar la aprobación del expediente, gasto y adjudicación de la adquisición de la ampliación de las oficinas de la Mancomunidad, con la correspondiente modificación de crédito.</p> <p>3.- Aceptación de la marca turística Beterri-Buruntza.</p> <p>4.- Referencia a los planes de empleo que deban elaborarse conforme a la ley de empleo.</p> <p>5.- Presentación de la propuesta en la ALE 2025.</p> <p>6.- Aprobación por la Comisión Especial de</p> |
|---|--|

onartzea Kontuen Batzorde Bereziak	Cuentas de la Cuenta General 2024 presentada
7.- Maitelaneak aurkeztutako proiektua diruz laguntzea onartzea eta, horrela bada, beharrezkoa den kreditu aldaketa onartzea.	7.- Aceptar la subvención del proyecto presentado por Maitelan y, en su caso, la modificación de crédito necesaria.
8.- GFaren eta eskualdeen arteko lankidetzak hitzarmena berri ematea.	8.- Dar a conocer el acuerdo de colaboración entre la DFG y las comarcas.
9.- Mankomunitateko funtzionarioaren bateragarritasuna onartzea.	9.- Aprobar la compatibilidad de la funcionaria de la Mancomunidad.
10.- Galderak, eskaerak eta proposamenak.	10.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- 2025/04/07 eta 2025/05/05(e)an egindako bileren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2025/04/07ko eta 2025/05/05ko datetako batzarraldiei dagozkien aktak irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, honako bozka hauek eman ditu:

- 2025/04/07ko akta aho-batez onartu da.
- 2025/05/05ko aktaren bozkan, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Urnietako ordezkariak abstenitu egin dira, ez baitziren bilera horretara bertaratu. Ondorioz, akta hau ezin izan da onartutzat eman, izan ere, ez ditu jaso aldeko nahiko bozka (%66,66 aldeko boto behar zituen, baina bakarrik %55,76 aldeko boto jaso ditu).

2.- Mankomunitateko bulegoak handitzeko erosketari buruzko espedienteak, gastuak eta adjudikazioak onartzeko erabakia hartzea, horretarako beharrezkoa den kreditu aldaketarekin batera.

Lehendakaria hasi da azaltzen lokalak erosteko beharra zein den, Zuzendariaren txostenaren harira, eta ondoren proposatutako proiektua aurkeztu du pantaila handian. Prestatutako planoen zirriborroak azaldu ditu. Planoaren zirriborroarekin amaitutakoan, Urnietako ordezkariak proposamen bat egin du eta galdetu ea pentsatu dugun teknikarien bi bulego egin beharrean, bakarra egitea, tamaina handiagoarekin proposatutako gela erabilera aldatuz.. Erantzun zaio aztertu daitekeela nahiz eta denak bulego bakar batean jartzea ekin nahi dugun zaratengatik eta lanerako erosotasunarengatik. Bestalde, Andoaingo ordezkariak proposatu du pentsatu daitekeela ate gehienak irristariak jartzea, espazioa irabazteko asmotan. Honi ere erantzun zaio esanez kontuan hartuko dela, baina aurrerago erabaki daitekeen gai bat dela.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du tasazioa altua iruditzen zaiola eta galdetu du ea diruzaintzako gerakinarekin finantzatu daitekeen inbertsioa izan daitekeen, finantza-jasangarritasunetik begiratuta, batez ere, gastu-arauari dagokioenez. Idazkari-Kontuhartzaileak erantzun dio baietz, posible dela, izan ere, Mankomunitatearen kasuan dirusarrera propioak ez ditunez (tasak, prezio publikoak...) bere dirusarrera guztiak Administrazio Publiko desberdinetatik (Udalak, GFA, Eusko Jaurilaritza...) datoz, eta, ondorioz, gastu-arau errespetatuko luke. Izan ere, gastu-araua kalkulatzeko da gastu ez-finantzarioei Administrazio Publikoetatik datozen ekarpen finalistak kentzen eta horri gehikuntza bat aplikatuz. Gure kasuan gastu finantzarioak neutralizatzen dira Administrazio Publikoen ekarpen-finalistekin, hortaz, gastu-araua ezingo da inoiz negatiboa izan.

Urnietako ordezkariak esan du prezioa altua dela baina zoritxarrez merkatua horrela dagoela, eta, beraz, alde bozkatuko duela. Hala ere, alde ona begiratzuz, aipatu du instalakuntza egokiak eta aproposak geldituko direla zerbitzu on bat emateko Mankomunitatetik.

Andoaingo ordezkariak galdetu du ea erosketan BEZ-a %10koa den eta erantzun zaio ezetz, izatekotan, %21koa.

Astigarragako ordezkariak aipatu du jakitun dela diru asko dela, baina Mankomunitatearekin aurrera egiteko beharrezko pausoa dela. Dagoen beharra argia da, beraz, egin beharreko inbertsioa dela uste du.

Lehendakariak adierazi du ados dagoela orain arte esandakoarekin eta gehitu du aurreko urtean (2024. urteko bukaeran) Lanpostuen Zerrenda adostea lortu zela eta horrek, besteak beste, suposatzen duela inbertsio honen aldeko apustua egitea.

Aurreko guztia entzunda, gai-ordeneko puntu hau bozkara eraman da eta ordezkari guztiek, aho-batez, aldeko botoa eman dute. Beraz, onartutzat ematen da Mankomunitateko bulegoak handitzeko erosketari buruzko espedientea, gastua eta adjudikazioa onartzeko erabakia hartzea, horretarako beharrezkoa den kreditu aldaketarekin batera.

3.- Beterri-Buruntza marka turistikoaren onartzea.

Lehendakariak azalpen labur bat egin du aurreko bileretan gai honi buruz hitz egin zelako, eta, puntu hau bozkara eraman da, denek aho-batez Beterri-Buruntza marka turistikoa izatea onartuz.

4.- Enplegu legeari jarraikiz egin beharreko enplegu planen inguruko aipamena.

Lehendakariak hartu du hitza, eta esan du Enplegu Lege berriak Enplegu plan bat egiteko beharra ezartzen duela. Oraindik ez dakigu ziur zer bilakaera izango duen honek baina Eusko Jaurlaritza dagoeneko hasi da lanean eta biltzen toki administrazioekin gai hau jorratzeko. Bukatzeko, esan du BBMren planteamendua dela Mankomunitateak egitea eta gero, nahi duten udalerriek, hura baliatuz, beraien herrietara jaistea eta egokitzea.

Ondoren, Zuzendariak hartu du hitza eta aurreko azalpena osatu du esanez 10.000 biztanletik gorako herriek Enplegu plana 2026eko urtarrila eta ekaina bitartean landu eta onartu behar dutela, baina 10.000 biztanletik beherakoek ere enplegu plana ez bada ere gaiaren inguruko lanketa egin behar dutela. Enplegu Planaren proiektuari buruz informazio gehiago jakitea espero dugula etorkizun hurbilean, maiatza amaieran deboluzio bilera garrantzitsu bat antolatua dagoelako, eta hori jasotzean Udalekin partekatuko dela,. Enplegu Plana egiteko finantzazioaren inguruko informaziorik hemendik gutxira jasotzea ez da espero, ekaina eta abendua bitartean egingo diren pilotuen eskutik joango baitira horren inguruko erabakiak hartzen, beraz, finantzaketaren inguruko informazioa izan gabe aurreikuspenak egin beharko dira aurrekontuetan. Hala ere, diotenez 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan finantzazioa jasoko da, enplegu plana egiteko derrigortasuna baitute. Azkenik, aipatu du Mankomunitateak jakin badakiela Lasarte-Oriak bere prozesua hasita duela.

Lasarte-Oriako ordezkariak hartu du hitza eta esan du beraiek Lege hau atera baino lehen hasi zirela Enplegu Planarekin. Hala ere, Lege hau indarrean sartu ondoren proiektu hori geldituta utzi zuten, argi jakin arte zer erabaki hartuko ziren, batik bat, eskualde mailan.

Astigarragako ordezkariak, bere ustez, logikoena, hasiera batean gutxienez, Beterri-Buruntza Mankomunitatetik egitea dela plan hau, proposatu den moduan.

Andoaingo ordezkariak galdetu du ea aurrekoan egin zen Enplegu Mahai teknikoan gai hau jorratu zen eta Zuzendariak ezetz erantzun dio, informazio hau Enplegu Mahaia egin ondoren iritsi baizitzaigun. Baina aipatu du horrekin lortura duen beste gai bat tratatu zela, Lanbidek homologatutako orientazio eta enplegu zentroena alegia. Beste eskualdeetan orohar eskualdeko erakunde publikoek bere gain hartzen dute orientazio-zentroa. Beterri-Buruntzan, ordea, Administrazio Publikoak eskatuta ez duenez hutsune hori erakunde pribatuek betetzen dute (Daiteke eta La Salle Berrozpek, hain zuzen ere). Gauzak horrela, Beterri-Buruntzan batzuetan zerbitzuetan hutsuneak ematen dira, sektore pribatuak zerbitzu hau bere gain hartu eta homologazioa luzatzen den bitartean finantzazioa agortzen denean zerbitzuak hutsuneak izaten baititu. Oraintxe bertan, La Salleko zerbitzua homologazio eta finantziatorik gabe gelditu da eta hutsune bat dute erabiltzaileek. Enplegu planak gai hau aztertzei aukera emango digu, eskualdean zein sistema nahi den planteatzeko eta erabiltzaileei etengabeko zerbitzua bermatu ahal izateko.

Gobernu Batzordeko kideek zentzuduna ikusi dute Lehendakariak egindako planteamendua: Mankomunitateak 2026ko urtarrila eta ekaina bitartean eskualdeko enplegu plana lantzea hain zuzen ere. Dena den, informazio gehiago jasotzean partekatuko dela adierazi da eta horren gainean lanketa eta erabakiak hartzen joatea ondo ikusi da.

5.- 2025eko TEEen proposamenaren aurkezpena egitea.

Lehendakariak hartu du hitza eta aipatu du TEE 2025 programa horrela banatuko dela:

- 1. Motan, 9 peoil kontratatzeke planteamendua egiten da (Udal txikiek 1 eta handiek 2) eta ekaineko Gobernu Batzordera ekarriko da banaketa hori udalerrri guztiekin partekatzeke. Horretaz gain, BBMk teknikari bat kontratatuko du, batez ere, programa hau dinamizatzeko. Formakuntza ematen jarraituko da. Plaza batzuk hutsik geldituko direnez, bertan parte hartzeke aukera beste hautagai batzuei irekiko zaie.
- Kontratazio Dirulaguntzak (KDL), 2. mota, ere jorratuko dugu, aurreko urtean arrakasta izan zutelako. Baldintzak perfilatzen joatea proposatzen da, lanketa egingo da.
- Lerro berri bat irekiko dugu, hirugarren sektoreko entitateei irekia. Honekin, 3. sektoreko entitateei diruz lagundu ahalko diegu langabezian dauden pertsonak kontratatzeke. Hau da, orain arte egin den bezala, diruz laguntzen genituen Udalak helburuko pertsona hauek kontratatzeke, eta proposamen honekin ahalbidetzen dena da 3. Sektoreko entitateak izateak kontratazioak egiten dituztenak. Aukera hau Lanbideko oinarrietan agertzen da.
- Finantzazioa Lanbidek ezartzen duenaren arabera izango da, hau da, %53 hasieran eta %47 justifikazioaren ondoren.

Lasarte-Oriako ordezkariak galdetu du ea 1. Motako kontratazio hauek urtero egiten den moduan egitea aurreikusten dugun, hau da, udalekin hitzarmen/kudeaketa-agindu bat sinatuz. Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio baietz. Azken urteetan egin izan den moduan, Mankomunitateak hitzarmen bat sinatuko duela udal bakoitzarekin, batik bat, Lanbideren dirusarrera hori emateko eta proiektu horren harremanak arautzeko. Gainera, gehitu dio BBMrentzat hitzarmen hori kolaborazio hitzarmen bat besterik ez dela, eta ez dela kudeaketa-agindu bat.

Bestalde, Zuzendariak Lehendakariaren azalpenari gehitu dio 3. Sektoreko entitateekin jorratu nahi den proiektua laneratzeko ibilbide aproposagoa probatzea dela. Ikusi delako era honetan kontratatuek beraien laneratzeko aukerak hobetu ditzaketela eta sektore pribatuan, batez ere, ibilbide luzeagoa izan dezaketela. Zehazki, udalengatik kontratatutak izanda, behin hura bukatuta, ikusi da gehiengo handi batek lanean jarraitzeke ezintasuna aurkitzen zutela, besteak beste, udaletako hizkuntz-eskakizunak betetzen ez dituztelako. Azkenik, esan du aukera hau Oarsoaldean probatu dutela eta aproposa ikusi dela, Mahai

teknikoko eskaeraren harira, Beterri-Buruntzan ere formato honen aldeko saiakera egitea nahiz eta epe aldetik erronka izan.

Urnietako ordezkariak galdetu du nortzuk kontsideratzen diren kolektibo zaugarriak kontratatuak izateko eta Zuzendariak erantzun dio Lanbidek ezartzen dituela zeintzuk diren beraien oinarrietan.

Usurbilgo ordezkariak galdetu du 3. Sektore entitateek egiten dituzten kontratazio horiek nola banatzea pentsatzen dugun udalen artean eta, azkenean, erantzun zaio, oraingoz behintzat, ezin dela bermatu udalerri bakoitzetik pertsona bat kontratatzea, nagusiki, 5 kontratazio aurreikusten direlako (eta 6 udalerri daudelako BBMn). Zuzendariak gehitu du Kontratazio Dirulaguntzak (2. Mota)ez ditugula kontutan hartzen baina horiek ere 6 herrietako herritarrak kontratazeko erabiltzen direla.. Bestalde, Usurbilgo ordezkariak galdetu du ea beharrezkoa ikusten dugun BBMn teknikari bat kontratatzea honetarako eta baietz erantzun zaio, programa honen lerro guztiak ondo garatzeko eta are gehiago orain 3. Entitateekin egingo dugun proba pilotu hau kontuan izanda.

6.- Aurkeztutako 2024ko Kontu Orokorrak onartzea Kontuen Batzorde Bereziak

Idazkari-kontuhartzaileak galdetu du ea norbaitek zalantzarik duen Kontu Orokorren gainean, printzipioz, ezer arrarorik agertzen ez dela uste baitu eta, gainera, aipatu du 2024ko ekitaldia itxi genuela 1.023.000€ inguruko diruzaintza gerakinarekin.

Lasarte-Oriako ordezkariak bi galdera egin ditu:

- Beterri Errotuz zergatik ez den agertzen konpromezu-kredituetan. Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio kontratu horren exekuzioa ez delako BBMrena, Udarena baizik. Beterri Errotuzen lanak Udaletan egiten dituzte eta horregatik zuzenean beraiei ordaintzen die.
- Galdetu du zer den “Comunidad Energética”. Zuzendariak erantzun dio ez garela sartu horrelako erakunde batean; “Energia Hitzarmena” izan beharko litzatekeela, itzulpen akats bat izan daitekela.

Ados azaldu dira eta aho-batez onartu dituzte 2024ko BBMko Kontu Orokorrak.

7.- Maitelaneak aurkeztutako proiektua diruz laguntzea onartzea eta, horrela bada, beharrezkoa den kreditu aldaketa onartzea.

Lehendakariak, aurreko bileran egin zuen bezala, Maitelane proiektua diruz laguntzeko proposamena azaldu du.

Lasarte-Oriako ordezkariak gehitu du beraiek ez dutela garbi ikusten dirulaguntza bat denik, eta bai, ordea, zerbitzu bat. Gainera, zalantzan jarri du gure Estatutuetan agertzen diren eskumenen barruan dagoen dirulaguntza hau.

Andoaingo ordezkariak esan du berari bai iruditzen zaiola gure eskumenen parte dela, Enplegu duina sustatzen eta laguntzen duelako.

Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio ez dela zerbitzu bat, laburbilduz, ez duelako BBMtik eskatzen zaion ezer egingo, eta BBM ez delako Maitelaren proiektuaren onuradun izango, baizik eta eskualdeko herritarrak.

Urnietako ordezkariak ere zalantzan jarri du dirulaguntza bat den edo zerbitzu bat izan daitekeen, nahiz eta eskertu duen honen gainean egindako lana eta beraien udaleko kontuhartzailearekin harremanetan jartzea eta, azkenean, kontuhartzaileak kontrakoa esan ez dionez alde bozkatuko duela jakinarazi du, zaintza enplegu arlotik prekarizatuta dagoen sektore bat delako bereziki.

Astigarragako ordezkariak esan du Maitelaren proiektu hau toki askotatik heldu daitekeela eta bai uste duela gure zereginetan sartzen dela, adibidez, enplegarritasunetik begiratuta.

Azkenik, Lehendakariak bozkara eraman du gai-ordeneko puntu hau eta aho-batez onartu da.

8.- GFAren eta eskualdeen arteko lankidetzaren hitzarmena berri ematea.

Lehendakariak esan du GFArekin hitzarmen markoa sinatu behar dugula, 4 urte iraungo dituela, eta marko horren barruan sinatuko ditugula proiektuen edo programen hitzarmenak. Hitzarmen honek GFA eta eskualdeen arteko lankidetzaren bermatzen du. Gobernantza kolaboratiboaren baitan antolatzen da eta GFA eta eskualdeen arteko lanketa eta koordinazioa bermatzen du, elkarren artean ekimen eta proiektu amankomunak landuz. Ekainean sinatzea espero da eta hitzarmen marko hau GFAtik bultzatzen den gobernantza-kolaboratiboan oinarritzen da.

9.- Mankomunitateko funtzionarioaren bateragarritasuna onartzea.

Idazkari-kontuhartzaileak egoera zein den azaldu du eta denak aho-batez onartu dute.

Urnietako ordezkariak galdetu du ea ez den karreradun funtzionarioa izan behar epaimahaietan parte hartzeko eta erantzun zaio kasu honetan ezetz, hori hautaketa-prozesuetako epaimahaietan eskatzen dela, hau, berriz, kulturako proiektuak baloratzeko epaimahaia besterik ez dela.

10.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Lehendakariak hainbat aipamen egin ditu:

- Maiatzaren 21n TEEn gaineko Enplegu Mahai teknikoa egingo da.
- Maiatzaren 27n turismoaren mahai-teknikoa deitu da.
- Ekaina erdialdean Enpresa eta Ekintzailetza mahai teknikoa deituko da
- Lizitazio batzuk martxan jarriko direla:
 - o Energia berriztagarrien analisia egiteko industrialdeetan.
 - o ESKUALDEAK programaren barruan ondorengotza prozesuak lantzeko beharrezkoa dena.

Bukatzeko Usurbilgo ordezkariak hartu du hitza eta esan du ea posible den botoa-ordezkatzea udal-ordezkariei batek etorri ezin duenean. Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio hori hobeto begiratu behar duela baina ez duela uste posible denik, izan ere, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak esaten du zinegotzien bozka pertsonala eta ordezkatzeko ezina dela. Hala ere, ikusi duela Nafarroa lege propio batek arautzen duela salbuespeneko egoeratan hori egin ahal izatea, nahiz eta Euskadin ez dagoen horrelako araubiderik.

Azkenik, datozen Gobernu-Batzarren bilerak errepasatu dira eta intraneteko egutegian igotzen saiatuko garela esan da.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 14:00ak zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

- 1.- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 07/04/2025 y el 05/05/2025.

En primer lugar, tras la lectura de las actas correspondientes a las sesiones de fecha 07/04/2025 y 05/05/2025, la Presidenta somete a votación la aprobación de la presente y la Junta de Gobierno ha emitido los siguientes votos:

- Se aprueba por unanimidad el acta del 07/04/2025
- En el acta del 05/05/2025 los representantes de Lasarte-Oria, Astigarraga y Urnieta se abstienen al no haber asistido a dicha reunión. En consecuencia, no se ha podido dar por aprobado el presente acta por no haber recibido suficientes votos a favor (66,66% de votos a favor, frente a un 55,76% de votos a favor).

2.- Acordar la aprobación del expediente, gasto y adjudicación de la adquisición para la ampliación de las oficinas de la Mancomunidad, con la correspondiente modificación de crédito.

La Presidenta comienza explicando la necesidad de compra de locales, a raíz del informe de la Directora, y presenta en pantalla grande el proyecto propuesto. Se han explicado los bocetos de los planos elaborados. Una vez finalizado con el borrador del plano, el representante de Urnieta hace una propuesta y pregunta si «hemos pensado en que en lugar de hacer dos oficinas de técnicos, se haga una sola, cambiando con mayor tamaño el uso de las aulas propuestas. Se le contesta que se puede analizar aunque se quiere evitar que todos/as estén ubicados/as en una sola oficina por ruidos y comodidad para el trabajo. Por su parte, el representante de Andoain propone que se pueda pensar en que la mayoría de las puertas sean correderas para ganar espacio. También se responde que se tendrá en cuenta pero que es una cuestión que se puede decidir más adelante.

La representante de Lasarte-Oria comenta que la tasación le parece alta y pregunta si puede ser una inversión financiable con remanente de tesorería desde el punto de vista de la sostenibilidad financiera, sobre todo en lo que se refiere a la regla de gasto. El Secretario-Interventor le responde que sí es posible, ya que en el caso de la Mancomunidad no dispone de ingresos propios (tasas, precios públicos...) la totalidad de sus ingresos provienen de las diferentes Administraciones Públicas (Ayuntamientos, DFG, Gobierno Vasco...), por lo que respetaría la regla de gasto. De hecho, la regla de gasto se calcula restando a los gastos no financieros las aportaciones finalistas procedentes de las Administraciones Públicas y aplicando un incremento al mismo. En nuestro caso se neutralizan los gastos financieros con las aportaciones finalistas de las Administraciones Públicas, por lo que la regla de gasto nunca podrá ser negativa.

El representante de Urnieta comenta que el precio es alto pero desgraciadamente el mercado está así, por lo que votará a favor. No obstante, y mirando la parte positiva, dice que quedan instalaciones adecuadas para dar un buen servicio desde la Mancomunidad.

El representante de Andoain pregunta si el IVA en la compra es del 10%, a lo que se responde que no, en todo caso, del 21%.

El representante de Astigarraga comenta que es consciente de que es mucho dinero, pero que es un paso necesario para avanzar con la Mancomunidad. La necesidad existente es clara, por lo que considera que es una inversión a realizar.

La Presidenta manifiesta que está de acuerdo con lo dicho hasta ahora y añade que el año pasado (finales de 2024) se consiguió acordar la Relación de Puestos de Trabajo, lo que supone, entre otras cosas, apostar por esta inversión.

Oído cuanto antecede, se somete a votación este punto del orden del día, votando favorablemente por unanimidad todos los representantes. Por lo tanto, se da por aprobado el acuerdo de aprobación del expediente de compra, gasto y adjudicación de la ampliación de oficinas de la Mancomunidad, así como la modificación de crédito necesaria para ello.

3.- Aprobación de la marca turística Beterri-Buruntza.

La Presidenta ha hecho una breve exposición porque en reuniones anteriores se habló de este tema y este punto se ha llevado a votación y todos han aceptado con unanimidad que la marca turística sea Beterri-Buruntza.

4.- Referencia a los planes de empleo que deban elaborarse conforme a la ley de empleo.

Toma la palabra la Presidenta para comentar que, la nueva Ley de Empleo establece la necesidad de elaborar un Plan de Empleo. Aún no sabemos con certeza cuál va a ser su evolución, pero el Gobierno Vasco ya ha empezado a trabajar y reunirse con las administraciones locales para tratar este tema. Concluye diciendo que el planteamiento de BBM es que lo hagan las Mancomunidades y luego que los municipios que lo deseen lo descarguen y se adapten a sus localidades.

A continuación toma la palabra la Directora para completar la exposición anterior señalando que los municipios de más de 10.000 habitantes deben elaborar y aprobar el Plan de Empleo entre enero y junio de 2026, pero que los menores de 10.000 habitantes también deben trabajar sobre el tema aunque no sea un plan de empleo. Esperamos conocer más información sobre el proyecto del Plan de Empleo en un futuro próximo, ya que a finales de mayo está organizada una importante reunión de devolución, que al recibirla se compartirá con los Ayuntamientos. No se espera que en breve se reciba información sobre la financiación para la elaboración del Plan de Empleo, ya que la toma de decisiones al respecto correrá a cargo de los pilotos que se realicen entre junio y diciembre, por lo que sin contar con información sobre la financiación habrá que hacer previsiones en los presupuestos. No obstante, dicen que en los municipios de más de 10.000 habitantes se recibirá financiación, ya que tienen la obligatoriedad de elaborar un

plan de empleo. Por último, señala que la Mancomunidad es consciente de que Lasarte-Oria ya ha iniciado su proceso.

Toma la palabra la representante de Lasarte-Oria para comentar que ellos/as comenzaron con el Plan de Empleo antes de la promulgación de esta Ley. No obstante, con posterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley dicho proyecto fue suspendido hasta conocer con claridad las decisiones que se adoptarían, sobre todo a nivel regional.

El representante de Astigarraga considera que lo lógico es que, al menos en principio, este plan se realice desde la Mancomunidad de Beterri-Buruntza, tal y como se ha propuesto.

El representante de Andoain pregunta si en la Mesa técnica de Empleo anterior se trató este tema, a lo que la directora responde que no, ya que esta información nos llegó una vez celebrada la Mesa de Empleo. Pero señala que con ello se trató otro tema que tiene encaje, el de los centros de orientación y empleo homologados por Lanbide. En otras comarcas, en general, las instituciones públicas comarcales asumen el centro de orientación. En Beterri-Buruntza, sin embargo, al no tener la petición de la Administración Pública, este vacío lo cubren las entidades privadas (Daiteke y La Salle Berrozpe, en concreto). Así las cosas, en Beterri-Buruntza a veces se dan deficiencias en los servicios, ya que mientras el sector privado asume este servicio y se prolonga la homologación, cuando se agota la financiación el servicio sufre deficiencias. Ahora mismo, el servicio de La Salle se ha quedado sin homologación ni financiación y los usuarios tienen un hueco. El plan de empleo nos permitirá analizar este tema para plantearnos qué sistema se quiere en la comarca y poder garantizar un servicio continuo a los usuarios.

Los miembros de la Junta de Gobierno ven sensato el planteamiento del Lehendakari de que la Mancomunidad elabore el plan de empleo comarcal entre enero y junio de 2026. No obstante, se ha indicado que se compartirá cuando se reciba más información y se ha visto bien que se vaya trabajando y tomando decisiones al respecto.

5.- Presentación de la propuesta en la ALE 2025.

Toma la palabra la Presidenta para comentar que el programa ALE 2025 se distribuirá de la siguiente manera:

- En los tipos 1 se plantea la contratación de 9 peones (en pequeños ayuntamientos 1 y en grandes 2) y traeremos a la Junta de Gobierno de junio esa distribución para compartirla con todos los municipios. A parte de eso, la Mancomunidad contratará fundamentalmente a un/a técnico/a para la dinamización de este programa.
- Se seguirán impartiendo formaciones. Algunas plazas quedarán vacantes, por lo que la posibilidad de participar en ellas se abrirá a otros candidatos.

- También abordaremos las Subvenciones a la Contratación (KDL), tipo 2, que tuvieron éxito el año anterior. Se propone ir perfilando las condiciones, se va a trabajar.
- Abrimos una nueva línea dirigida a las entidades del tercer sector. Con esto podremos subvencionar a las entidades del tercer sector para la contratación de personas desempleadas. Es decir, tal y como se ha venido haciendo hasta ahora, el Ayuntamiento subvencionaba la contratación de estas personas destinatarias, y lo que se posibilita con esta propuesta es que sean entidades del tercer sector las que realicen las contrataciones. Esta opción aparece en las bases de Lanbide.
- La financiación dependerá de lo que establezca Lanbide, es decir, un 53% al inicio y un 47% tras la justificación.

La representante de Lasarte-Oria pregunta si la previsión es que estas contrataciones de tipo 1 se realicen tal y como se han realizado anualmente, es decir, firmando un convenio/encomienda de gestión con los ayuntamientos. El Secretario-Interventor le responde afirmativamente. Que, tal y como se viene haciendo en los últimos años, la Mancomunidad va a suscribir un convenio con cada uno de los ayuntamientos, principalmente para la concesión de este ingreso de Lanbide y para regular las relaciones de este proyecto. Además, añade que para la Mancomunidad este convenio no es más que un convenio de colaboración y no una encomienda de gestión.

Por su parte, la Directora añade a la exposición de la Presidenta que el proyecto que se pretende abordar con las entidades del tercer sector es probar un itinerario más adecuado para la inserción laboral. Porque se ha visto que de este modo las personas contratadas pueden mejorar sus posibilidades de inserción laboral y, sobre todo, tener un mayor recorrido en el sector privado. En concreto, habiendo sido contratados por los ayuntamientos, una vez finalizado el mismo, se ha observado que una gran mayoría se encontraba imposibilitada para seguir trabajando, entre otros motivos, por no cumplir los perfiles lingüísticos de los ayuntamientos. Por último, dice que esta opción se ha probado en Oarsoaldea y se ha visto adecuada, al hilo de la petición de la Mesa técnica. En Beterri-Buruntza también hay que hacer un esfuerzo por este formato, aunque sea un reto en el tiempo. El representante de Urnieta pregunta quiénes se consideran colectivos vulnerables para ser contratados, a lo que la Directora responde que Lanbide establece cuáles son en sus bases.

La representante de Usurbil pregunta por la distribución que se plantea realizar entre los ayuntamientos de estas contrataciones de las entidades del tercer sector y finalmente se responde que, al menos por el momento, no se puede garantizar la contratación de una persona por cada municipio, principalmente porque se prevén 5 contrataciones (y hay 6 municipios en la Mancomunidad). La directora añade que no tenemos en cuenta las Subvenciones a la Contratación (tipo 2) pero que también se utilizan para contratar a ciudadanos de los 6 municipios. Por otra parte, la representante de Usurbil pregunta si consideramos necesario contratar un/a técnico/a en BBM para este fin, a lo que se

responde que sí, para el buen desarrollo de todas las líneas de este programa y más ahora teniendo en cuenta esta prueba piloto que vamos a realizar con las entidades del tercer sector.

6.- Aprobación por la Comisión Especial de Cuentas de la Cuenta General 2024 presentada

El Secretario-Interventor pregunta si alguien tiene alguna duda sobre las Cuentas Generales, ya que, en principio, considera que no aparece nada extraño y además comenta que cerramos el ejercicio 2024 con un remanente de tesorería de unos 1.023.000 €.

La representante de Lasarte-Oria plantea dos preguntas:

- Motivos por los que Beterri Errotuz no aparece en los créditos de compromiso. Le contesta el Secretario-Interventor porque la ejecución de este contrato no es de BBM sino de Ayuntamientos. Los trabajos de Beterri Errotuz los realizan en los Ayuntamientos y por ello se paga directamente a ellos.
- Pregunta qué es "Comunidad Energética". La Directora contesta que no hemos entrado en una institución de este tipo, que debería ser un "Convenio Energético", que puede ser un error de traducción.

Se muestran de acuerdo y aprueban por unanimidad las Cuentas Generales de la Mancomunidad 2024.

7.- Aceptar la subvención del proyecto presentado por Maitelan y, en su caso, la modificación de crédito necesaria.

La Presidenta, como ya hizo en la reunión anterior, ha explicado la propuesta de subvencionar el proyecto de Maitelan.

La representante de Lasarte-Oria añade que ellos no ven claramente que sea una subvención y sí un servicio. Además, cuestiona que esta subvención esté dentro de las competencias que aparecen en nuestros Estatutos.

El representante de Andoain comenta que a él sí le parece que forma parte de nuestras competencias porque fomenta y favorece el empleo digno.

El Secretario-Interventor le responde que no es un servicio porque, en resumen, no va a hacer nada que se le pida desde la Mancomunidad y que ésta no va a ser beneficiario del proyecto de Maitelan, sino que el beneficiario va a ser el/la ciudadano/a de la comarca.

El representante de Urnieta también cuestiona si se trata de una subvención o puede tratarse de un servicio, aunque agradece el trabajo realizado al respecto y que se hayan puesto en contacto con el interventor de su ayuntamiento y finalmente comunica que al no haberle dicho el interventor lo contrario, votará a favor especialmente por tratarse de un sector precarizado desde el área de empleo de custodia.

El representante de Astigarraga comenta que este proyecto de Maitelan puede llegar desde muchos sitios y cree que entra en nuestras tareas, por ejemplo, desde la empleabilidad.

Finalmente, la Presidenta somete a votación este punto del orden del día, que se aprueba por unanimidad.

8.- Dar a conocer el acuerdo de colaboración entre la DFG y las comarcas.

La Presidenta dice que tenemos que firmar un convenio marco con la DFG, que durará 4 años, y dentro de ese marco firmaremos convenios de proyectos o programas. Esta conferencia garantiza la cooperación entre la DFG y las regiones. Se organiza en el marco de la gobernanza colaborativa y garantiza la elaboración y coordinación entre la DFG y las regiones, trabajando conjuntamente iniciativas y proyectos comunes. Se espera que se firme en junio y este convenio marco se basa en la gobernanza colaborativa que se bulta desde la DFG.

9.- Aprobar la compatibilidad de la funcionaria de la Mancomunidad.

El Secretario-Interventor explica cuál es la situación y es aceptado por unanimidad.

El representante de Urnieta pregunta si no debe ser funcionario de carrera para participar en este tribunal y se le contesta que no, que esto se pide en los tribunales de los procesos selectivos, en este caso es un tribunal para valorar proyectos de cultura.

10.- Preguntas, rechazos y propuestas.

La Presidenta ha realizado varias citas:

- El 21 de mayo se celebrará la Mesa Técnica de Empleo sobre las ALE.
- El 27 de mayo se ha convocado la mesa técnica de turismo.
- A mediados de junio se convocará la mesa técnica de Empresa y Emprendimiento

- Puesta en marcha de varias licitaciones:
 - o Análisis de energías renovables en polígonos industriales.
 - o La necesaria para abordar los procesos de sucesión dentro del programa ESKUALDEAK.

Finalmente toma la palabra la representante de Usurbil para comentar si es posible la delegación de voto cuando no puede asistir un representante municipal. El Secretario-Interventor le responde que tiene que mirar mejor pero no cree que sea posible, ya que el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales dice que es voto personal e insustituible de los concejales. Sin embargo, ha observado que Navarra tiene una ley propia que regula la posibilidad de hacerlo en situaciones excepcionales, si bien en Euskadi no existe tal régimen.

Por último, se repasan las reuniones de las próximas Juntas de Gobierno y se comenta que intentaremos subirlas en el calendario de la intranet.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria, siendo las 14:00 horas. De conformidad con lo preceptuado en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de Entidades Locales, una vez redactado por el Secretario-Interventor el presente documento de sesión y leído y validado por la Presidenta, lo firman ambos. Y de todo ello doy fe yo, el Secretario.

O.E. /Vº Bº
La Presidenta

EI Secretario-Interventor



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025BG010006-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)